

Herri mugimenduaren egoera eta desobedientzia aztertuko dituzte asteburuan

Herria Mugi! ekimenak deituta, II. Topagunea egingo dute Zarautzen

I. Petxarroman / Donostia

IAZ egindako topaguneari segida emango diote asteburu honetan Euskal Herriko herri mugimenduetako ordezkariak. Zarauzko Albertia aterpetxean egingo dute bi eguneko jarduna, eta bi gai aztertuko dituzte: Euskal Herriko herri mugimenduen egoera eta aurrera begirako urratsak bate-tik, eta desobedientzia bestetik.

IAZ Donostiako Egia auzoan egindako herri mugimenduen topagunean, lanean segitzea erabaki zuten, eta orduz geroztik egindako lanaren ondorioa da asteburu honetan Zarautzen (Gipuzkoa) egingo duten Euskal Herriko Herri Mugimenduaren II. Topagunea. Iñaki Otamendi Herria Mugi! ekimeneko bozeramaileak atzo azaldu zuenez, «Egia egindako bilkuran herri mugimenduei buruzko diagnosi bat egiten saiatu ginen. Hala ere, diagnosa baino gehiago, egoeraren osagai nagusiak jarri genituen mahai gainean; aurrera begira, adostutakoaren inguruan lanean jarraitzeko asmoz».

Egiako topaketetan talde eragile bat sortu zen, eta hark lanean jardun du azken hila-bete hauetan, «euskal gizarte eredu alternatibo baten alde». Horretarako sortu zuten Herria Mugi! ekimena hainbat gizarte elkartek: besteak beste, A-8 Doan, AABak, Autodeterminazioaren Aldeko Biltzarrak, Askagintza, Dantzaki, Egizan, Eguzki, Euskadiko Gazte Kontseilua, Egiako Intsuminak, Ipes Bizkaia, Irungo Batzar Antimilitarista, Jarrai, Kakitzat, Kalamudia, Senideak, Sumendi, Zai-Zoi...

Egoera eta desobedientzia

Topagunea larunbatean hasi eta igandean amaituko da. Larunbatean, Euskal Herriko herri mugimenduen egoeraren azterketa eta aurrera begirako urratsak aztertuko dituzte. Ainhoa Permach Herri Mugi! ekimeneko kideak azaldu zuenez, «garrantzitsua iruditzen zaigu azken bi urteotako gertaeren inguruko hausnarketa egitea, gerta-



EDURNE KOCH

Iñaki Otamendi eta Ainhoa Permach, Herria Mugi! ekimeneko kideak, atzoko aurkezpenean.

tuko guztiak modu zuzenean eragiten duelako euskal gizartean». Halaber, Permachek gogoratu zuen ekimenean biltzen diren herri mugimenduak «eraldatzailerak» direla, eta hori dela-eta, «ezinbestekoa» zaie egoeraz behar bezala jabetzea, helburua duten eraldaketa benetako izateko.

Bigarren egoanean, berriz, desobedientzia aztertuko dute, luze eta zabal. Permachen hitzetan, iazko topagunean gai hori jorratu beha-

rra agertu zen, eta, horregatik, behar horri erantzun nahi izan diote orain. Desobedientziaren alorrean lanean ari diren taldeen ekarpenetan kokatuko dute eztabaida.

Iñaki Otamendik esan zuenez, bi gaiekin «ondorio praktikoetara» heltzeko asmoa dute. «Planteamendu eta ekimen zehatzak lortu nahi ditugu, teoria hutsean ez geratzeko».

Herria Mugi! ekimeneko kideek dei egin zieten herri

mugimenduetako kideei parte hartzeko, eta gogoratu zuten izena emateko epea bihar arte irekita dagoela. Iazko topagunean 100 bat lagunek parte hartu zuten, eta aurten parte hartzea «handiagoa» izango dela uste dute, besteak beste ekarpenetan jada nabaritutako dutelako jende gehiago ari dela parte hartzen.

Parte hartzeko interesa dutenek 943 275561 telefonora deitu dezakete, eta bihar arteko epea dute.

Erresuma Batuko behi okelaren aferagatik, arau-hauste prozedura ireki diote Alemaniari

■ *Bahimenduari amaiera emateko eskatu dio EBk Berlingo Gobernuari*

Efe / Brussela

EUROPAKO Batasunak (EB) arau-hauste prozedura ireki zuen atzo Alemaniaren kontra, Erresuma Batuko behi okelaren gaineko enbargoari amaiera ez jartzeagatik. Jakina denez, EBk abuztuan Erresuma Batuari baimena ematea erabaki zuen behi okela gainerako herrialdeetara esportatzeko. Aurretik debekatua zuen herrialde horrek okela saltzea behi eroen

afera piztu zenetik. Europako Batasunak gutun bat bidali dio Alemaniako Gobernuari, eskatuz azal dezala zergatik ez duen bete EBren agindua bahimendua kentzeko.

Datorren ostegunetik aurrera gutun horri erantzun diezaien eskatu dio EBk Alemaniari. Izan ere, datorren ostegunean erabakiko du Alemaniako Parlamentuak enbargoari eusten dion ala ez. Berlingo Gobernuak emana du enbargoa bertan behera

uzteko baimena, baina estatu federatuek osatzen duten Parlamentuko beheko ganberak eman behar dio oniritzia Gobernuaren eskaerari.

Bruselak nahi du Alemaniako Gobernuak estatu federatuak presiona ditzan, haietako asko enbargoa altxatzearen aurkakoak baitira. Arau-hauste prozedura gutunaren bidez ireki da, baina enbargoari eutsiko balio, beste pauso batzuk eman ditu EBk.

Xiringak trukatzeko programa jarriko da gaur martxan Martuteneko espetxean

■ *Egitasmoak kontsumoa ez duela handitzen frogatu da Basaurin*

Erredakzioa / Donostia

MARTUTENeko espetxean xiringak trukatzeko programa bat ezarriko dute gaurtik aurrera Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak eta Espainiako Espetxe Erakundeetako Zuzendaritzak, Jaurlaritzak atzo jakinarazi zuenez. Basauriko kartzelan bi urtez egin da proba, eta, ondorioak ikusita, ekimena zabaltzea erabaki dute.

Eusko Jaurlaritzaren arabera, Basauriko espetxerentziak frogatzen du egitasmoak aldaketak eragiten dituela jokabidean, droga kontsumoak dakartzan arriskuak murrizten dituela, eta droga menpekotasuna gainditzeko beste programa batzuetan parte hartzea errazten die la kontsumitzaileei. Bestalde, xiringa trukeak ez du areagotzen kontsumoa, eta toxikomano bakoitzaren beharretara molda daiteke ekimena, Jaurlaritzaren ustez.

Osasunaren eta duintasunaren alde

«Askatasunik ez dutenen bizitza, duintasuna eta osasuna babestea» da egitasmoaren xedea, «espetxetik kanpo egiten den modu berean». Drogazaleei xiringak emateak osasun neurriak hobetu eta hainbat gaixotasun —GIB, hepatitis...— saihesteko balio duela ikusita, egitasmoa espetxetan ere egin zitekeela frogatu zen Basaurin, eta gauza bera jarriko da martxan Martutenen. Hasteko, heziketa jaso dute espetxeetako langileek, eta gaurtik aitzina osasuna arriskuan ez jartzeko beharrezkoak dituzten tresnak banatuko dizkiete drogazaleei. Guztira, 70 bat espetxeratu baliatuko dira egitasmoaz.

Espetxeko osasun zerbitzuek jarriko dute martxan programa, eta batzorde bat arduratuko da bide onetik doala egiaztatzeaz.